

PEDIATRIAREN ALORREKO EDIKAMENTUAK: EZ DA JOLASA!

D BITAMINA: dosi zuzena da gakoa

D bitaminak hezurrei indartsu eta osasuntsu hazten laguntzen die. Funtsezkoa da haurtzaroan, haren eskasia prebenitzeko edo tratatzeko. Hala ere, **behar baino gehiago emateak kalte egin diezaioke osasunari. Modu seguruan nola eman** azalduko dizugu hemen.

■ NORK HARTU BEHAR DU D BITAMINA?

- **Haurtxoek, jaiotzen direnetik urtebete egin arte.**
- Lehenengo urtetik aurrera, kasu batzuetan bakarrik, eta pediatriak hala agintzen badu.

Pediatriak esango dizu beti zein den dosi zehatza (mililitrotan edo tantatan neurtuta), eta zenbatean behin eman behar diozun.

■ NOLA EMAN D BITAMINA BEHAR DEN MODUAN?

- **Errezetatutako medikamentua bakarrik** erabili. Era askotako neurgailuak daude (xiringa, tanta-kontagailua...), eta mililitro edo tanta kopurua aurkezpen komertzialaren arabera alda daiteke.
- Emaiozu egunean behin.
- **Neurtu dosia zehaztasunez:**
 - Medikamentuak **xiringa** baldin badu, neurtu agindutako mililitroak (ml).
 - **Tanta-kontagailua** badarama, zenbatu tantak banan-banan koilaratxo batean.
- Zuzenean ahora eman diezaiokezu; ez gehitu biberoiari.

■ OHIKO AKATSAK

- **Tantak eta mililitroak (ml) nahastea.** Mililitro bakar batek tanta asko ditu. Nahastuz gero, gaintosi larria eragin dezakegu.
- **Marka edo bilgarriaren formatua aldatzea** inori kontsultatu gabe.



■ GOGOAN IZAN

- D bitamina **garrantzitsua** da, baina **dosi zuzena ematea da gakoa**.
- D bitamina gehiago hartzeak **ez dakar onura handiagorik**. Gehiegi hartzea kaltegarria izan daiteke.
- Zalantzarik izanez gero, **galdetu zure osasun-taldeari**.
- Zure farmazian ere azal diezazukete zein den medikamentua emateko pauta.



Bibliografia:

- Medikamentuen eta Osasun Produktuen Espainiako Agentzia (AEMPS). [Vitamina D: casos graves de hipercalcemia por sobredosificación en pacientes adultos y en pediatría](#) (MUH) (FV), 2/2019) (kontsultateguna 2026/04/20).
- [D bitamina helduengan: gainbaloratuta dago?](#) INFAC. 2020;28(1):1-10.
- [Recomendaciones para el Uso Seguro de los Medicamentos de Alto Riesgo en Pediatría](#). Madrid: Ministerio de Sanidad, Instituto para el Uso Seguro de los Medicamentos, Asociación Española de Pediatría y Sociedad Española de Farmacia Hospitalaria; 2024.

NOLA EMAN D BITAMINA PEDIATRIAN MODU SEGURUAN

Taula honetan, pediatrian erabiltzen diren D bitaminadun medikamentuak jaso ditugu. Adibide gisa, **egunean 400 UIko ohiko dosia** hartu dugu (haurra jaiotzen denetik urtebete egin arte gomendatzen dena).

- **Erabili beti medikamentu bakoitzaren kaxan datorren neurgailua**, hartzen den kantitatea egokia dela ziurtatzeko.
- Informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu erabilera-orria.

Izena eta aurkezpen komertziala	Bilgarriaren formatua	400 UI/ eguneko dosirako kantitatea	Nola erabiltzen da?
VITAMINA D3 KERN PHARMA® 2.000 UI/ml ahotik hartzeko disoluzioa, 30 ml-ko flaskoa + 1 ml-ko xiringa	Flaskoa eta xiringa dosifikatzailea	0,2 mililitro (ml)	1. Sartu xiringa tapoi zulatuaren zuloan. 2. Jarri flaskoa buruz behera eta atera errezetatutako mililitroak (ml). 
COLECALCIFEROL NORMON® DELIUS® DEVIK® 10.000 UI/ml ahotik hartzeko tantak, 10 ml-ko flaskoa	Flaskoa eta dosifikagailu tanta-kontagailu independentea	2 tanta	1. Sartu tanta-kontagailua flaskoan eta atera likidoa. 2. Zenbatu errezetatutako tantak koilaratxo batean. 
DELCRIN® 10.000 UI/ml ahotik hartzeko tantak, 10 ml-ko flaskoa	Tanta-kontagailua integratuta duen flaskoa	2 tanta	1. Jarri flaskoa buruz behera, posizio bertikalean. 2. Agindutako tanta kopurua koilaratxo batera erortzen utzi. 
VITAMINA D3 FRESENIUS KABI EFG 14.400 UI/ml ahotik hartzeko disoluzioa, 12,5 ml-ko flaskoa		1 tanta	
VITAMINA D3 KERN PHARMA® 2.000 UI/ml ahotik hartzeko disoluzioa, 10 ml-ko flaskoa (tanta-kontagailua)		6 tanta	

Egileak: Iñigo Aizpurua, Teodoro Alonso, Rosa Añel, Elena Arias, Judit Becerra, Mónica del Valle, Laura Gancedo, Nagore Lejarza, Itxasne Lekue, M^a José López, Juan Carlos Martín, Oihana Mora, Carmela Mozo, Isabel Porras, Nerea Ullibarri eta Olatz Vergniory.

cevime
 centro vasco de información de medicamentos
 medikamentu informazioa euskal zentroa

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
 Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Fitxa honen helburu bakarra informazioa ematea da, eta inola ez ditu ordezkatzen zure osasun arloko profesionalak emandako gomendioak. Guztiz debekatuta dago dokumentu hau promozio helburuetarako erabiltzea. ISSN: 2255-3177

